Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

911

AGINDUA, 2009ko otsailaren 3koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, enpresa eta sindikatu arloko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei diru-laguntzak ematea arautzen duena, ingurumenaren arloko hezkuntza, informazio, partaidetza, prestakuntza eta sentsibilizazioko jarduerak gara ditzaten, betiere, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategian jasotakoaren esparruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, 98. artikuluan, Herri Administrazioen esku uzten du ingurumen-hezkuntza gizarte-arlo guztietan sustatzeko eginkizuna, ingurumena babestera bideratutako informazioa, jarrerak, balioak eta jokabideak herritarrengan hedatu eta zabaltzeko ekimenen bitartez.

Bestalde, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an izandako bilkuran onartutako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategian (2002-2020) adierazten denez, iraunkortasuna lortzeko bidean nahitaezko baldintza da, batetik, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea eta, bestetik, ingurumen-politiketan herritarrek eta gizarte-eragileek bete-betean parte hartzea.

Alde horretatik, estrategia horren helburua izango da, besteak beste, garapen iraunkorraren balioak eta kultura aintzat hartuko dituzten komunikazio eta sentsibilizazioko kanpainak sustatzea. Era berean, gobernuz kanpoko erakunde, ekologista, kontsumitzaileen elkarte eta beste erakunde batzuen partaidetza aktiboa ere funtsezkoa izango da, kezka eta interes kolektiboekin sentsibilizatzeko eta horiek hedatzeko, nahiz gutariko bakoitzaren motibazioa eta inplikazioa lortzeko.

Helburu horiek guztiak betetzeko asmoz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak diru-laguntza hauek sustatu ditu.

Horrenbestez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ordaindu beharreko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

911

ORDEN de 3 de febrero de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se regula la concesión de subvenciones a entidades privadas sin animo de lucro del ámbito empresarial y sindical, que realicen actividades de educación, información, participación, formación y sensibilización en materia de medio ambiente, en el marco de las previsiones de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible.

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, en su artículo 98, encomienda a las Administraciones públicas el impulso de la educación ambiental en todos los sectores sociales, mediante actuaciones que difundan y extiendan en la ciudadanía, información, actitudes, valores y comportamientos tendentes a la protección del medio ambiente.

Por otra parte, la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, aprobada por Consejo de Gobierno en sesión de 4 de junio de 2002, ha considerado la educación, formación y sensibilización como una de las condiciones necesarias para avanzar hacia la sostenibilidad y considera la cooperación activa de la ciudadanía y de los agentes sociales en las políticas ambientales como una de las condiciones necesarias para avanzar hacia la sostenibilidad.

En este sentido, la citada Estrategia incluye entre sus objetivos el de promover campañas de comunicación y sensibilización que contemplen los principios y cultura del desarrollo sostenible. Estima, asimismo, que la participación activa de las organizaciones no gubernamentales, las asociaciones de ecologistas, consumidores y otras entidades, resulta fundamental para la sensibilización, la transmisión de preocupaciones e intereses colectivos y la motivación e implicación de todas y cada una de las personas.

Con el fin de dar cumplimiento a todos estos objetivos, el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio promueve la presente línea de ayudas.

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que me atribuye el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y con

diru-laguntzei eta bestelako laguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan izanik,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da, enpresa eta sindikatu arloko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei norgehiagokako prozeduraren bidez diru-laguntzak ematea arautzea; 2009ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra bitartean enpresa eta sindikatu eremuan ingurumenaren arloko hezkuntza, informazio, partaidetza, prestakuntza eta sentsibilizazioko jarduerak gara ditzaten, betiere, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian jasotakoaren esparruan.

2.–Aurreko atalean ezarritakoaren arabera eta enpresa eta sindikatu eremuan ingurumenaren promozioan arituko diren ondorengo jarduerak lagundu ahal izango dira diruz:

a) Ingurumen-arazoak ezagutu, balioetsi, horiei aurre hartu eta hobetzeko herritarren partaidetzarako inplikazioa ahalbidetuko duten jarduera berriak diseinatu eta abian jartzea.

b) Garapen iraunkorraren balioak eta kultura sustatzeko kanpainak, jardunaldiak, topaketak, mintegiak eta lantegiak antolatzea.

c) Argitalpenak eta gidak kaleratzea. Horiek ISBN edo ISSN izan beharko dute, foroetan, jardunaldietan eta antzeko ekintzetan banatzekoak badira izan ezik.

d) Ingurumenari buruzko legeria ezagutu eta betetzea hobetu eta erraztuko duten informazio-tresnak diseinatu eta abian jartzea.

e) Orri eta argitalpen elektronikoak sortu eta mantentzea.

f) Artikulu honetako 1. atalean ezarritakoarekin bat datozen beste jarduera batzuk.

3.– Aurreko ataletan deskribatutako jarduerak diruz lagunduko dira, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gauzatzen badira.

4.– Xede horretara, gehienez, berrehun eta berrogeita hamar mila euro (250.000) zuzenduko dira guztira, Agindu honen xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoa kaltetu gabe.

2.– artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakunde, elkarte eta beste edozein entitate pribatuk, baldin eta legez eratuta badaude eta, Agindu hau argitaratu baino urtebete lehenago, dagozkion erregistroetan izena emanda badaude eta beraien

las demás disposiciones aplicables a las ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto regular la concesión por procedimiento de concurrencia competitiva, de subvenciones a la que podrán acogerse las entidades privadas sin animo de lucro del ámbito empresarial y sindical, que realicen, desde 1 de enero de 2009 hasta 31 de diciembre de 2009, actividades de educación, información, participación, formación y sensibilización en materia de medio ambiente en el ámbito empresarial y sindical, en el marco de las previsiones de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible.

2.– Se consideran actividades objeto de subvención, conforme a lo establecido en el apartado anterior y que se desarrollen en el ámbito de la promoción del medio ambiente en el ámbito empresarial y sindical, las siguientes:

a) Diseño y puesta en marcha de actividades novedosas, que impulsen el conocimiento, valoración, prevención y mejora de los problemas ambientales.

b) Organización de campañas, jornadas, encuentros, seminarios o talleres de trabajo que fomenten los principios y cultura del desarrollo sostenible.

c) Edición de publicaciones y guías. Estas deberán contar con ISBN o ISSN, salvo que formen parte de la documentación a distribuir en foros, jornadas y actividades análogas.

d) Diseño y puesta en marcha de instrumentos de información que mejoren y faciliten el conocimiento y cumplimiento de la legislación ambiental.

e) Creación y mantenimiento de páginas o publicaciones electrónicas.

f) Otras actividades acordes con lo establecido en el apartado 1 del presente artículo.

3.– Serán objeto de subvención las actividades descritas en los apartados anteriores, siempre que se realicen dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– A este fin se destinará un máximo total de doscientos cincuenta mil euros (250.000), sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Adicional única de la presente Orden.

Artículo 2.– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las organizaciones, asociaciones y cualesquiera otras entidades privadas, sin animo de lucro, legalmente constituidas, e inscritas en los correspondientes Registros, con una antelación de al menos un año desde la fecha de

ekintzak enpresa eta sindikatu eremuan garatzen badituzte.

2.– Kideen artean boluntarioak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeari jarraitu beharko diote.

3.– Erakunde onuradunak egunean egon beharko du zerga- eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

4.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak ematea, eta, hala dagokionean, horiek ordaintzea, baldintzatuta egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten xede bererako diru-laguntzen esparruan, dirua itzultzeko edo zigorren bat ezartzeko espedientea hasirik egon eta, oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude.

5.– Dagokion zigorrak ezartzen duen aldian, Agindu honetan araututako diru-laguntzen eta bestelako laguntzen deialdietan ezin izango dute parte hartu sexu-diskriminazioan erortzeagatik zigor administratibo edo penala jarri zaien pertsona fisikoek nahiz juridikoek, ezta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, debeku horren bidez zigortutakoek ere.

3. artikulua.– Beste diru-laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak izango dira diru publiko zein pribatuaren kargura helburu bererako eman daitezkeen beste diru-laguntzekin, ondorengo atalean xedatutakoak izan ezik.

2.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango baldin eta erakundeak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren aurrekontuaren kargura helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso badu.

3.– Nolanahi ere, laguntzen zenbateko osoak ezin izango du jardueraren kostuaren ehuneko ehun gainditu.

4. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntzak norgehiagoka bidezko diru-laguntzatzat hartuko dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko hirurogeita hamar gaindituko, ezta proiektu bakoitzeko hogeita hamar mila (30.000) euro ere.

3.– Irabazi-asmorik gabeko erakunde bakoitzak gehienez bi proiektutarako diru-laguntza jaso ahal izango du.

publicación de la presente Orden y que desarrollen sus actividades en el ámbito empresarial y sindical.

2.– Las entidades privadas sin ánimo de lucro que cuenten entre sus miembros con personas voluntarias, deberán regirse por la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

3.– La entidad beneficiaria deberá estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

4.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones a las entidades beneficiarias de éstas, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las subvenciones de la misma naturaleza concedidas por Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

5.– No podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las convocatorias de las subvenciones y ayudas reguladas en la presente Orden las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– La concesión de las subvenciones reguladas por la presente Orden será compatible con aquellas otras, que teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas con cargo a fondos públicos o privados, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

2.– Será incompatible la concesión de las subvenciones reguladas por la presente Orden, en el supuesto de que la entidad hubiera obtenido subvenciones o ayudas con cargo al presupuesto del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, para la misma finalidad.

3.– En todo caso, la cuantía global de las ayudas no podrá superar el cien por cien del coste de la actividad.

Artículo 4.– Cuantía de las ayudas.

1.– Las ayudas tendrán la consideración de subvenciones en concurrencia competitiva, conforme a lo establecido en el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

2.– La cuantía de la ayuda no podrá exceder del setenta por ciento del importe de los gastos subvencionables y de treinta mil (30.000) euros por proyecto.

3.– Cada entidad sin ánimo de lucro podrá recibir subvención para un máximo de dos proyectos.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– 1. artikuluan deskribatutako jarduerak antolatu eta egiteko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, ondorengo ataletako zehaztapenen arabera.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan, lau mota hauek hartzen dira aintzat: kanpokoak, pertsonalekoak, orokorrak eta inbertsioetakoak.

a) Kanpoko gastuak. Halakotzat hartuko dira onuradunaz bestelako erakundeek egindako zerbitzuen edo prestazioen ondorioz sortutakoak, erakunde horiek publikoak edo pribatuak, nahiz pertsona fisikoak izanik ere. Gastu horien % 100 lagundu ahal izango dira diruz.

b) Pertsonal-gastuak. Halakotzat hartuko dira erakunde onuraduneko pertsonalak sortutakoak, pertsonala langile-zerrendakoa nahiz jarduerarako berariaz kontratatua izanik ere. Gastu horiek, oro har, nominen edo lan-kontratuen bidez justifikatzen dira. Gastu horiek kanpoko gastuen % 40 arte lagundu ahal izango dira diruz.

c) Gastu orokorrak. Halakotzat hartuko dira erakundearen egiturak proiektu bat antolatzeko egindako kudeaketa-gastuak (telefonoa, elektrizitatea, posta, fotokopiak…), bai eta proiektuaren ondoriozko protokolo-gastuak ere (harrera-afariak, lunchak…). Gastu horiek kanpoko gastuen % 10 arte lagundu ahal izango dira diruz.

d) Inbertsio-gastuak. Halakotzat hartuko dira informatika-ekipoak, argazki-ekipoak edota bestelako aktibo finkoak erosteko gastuak. Gastu horiek kanpoko gastuen % 10 arte lagundu ahal izango dira diruz.

3.– Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Diru-laguntza jaso duen proiektuarekin zuzenean lotuta ez dudenak, zehazki, erakunde onuradunaren ohiko funtzionamendukoak edo egiturazkoak, 2.c) atalean zehaztutakoa kaltetu gabe.

b) Beharrezkoak ez direnak edo behar bezala justifikatu gabeak, edota bidegabetzat edo neurrigabekotzat hartzen direnak, ekonomiaren eta kostu-eraginkortasun erlazioaren printzipioak kontuan izanda.

c) Zuzenekoak ez diren zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta besteak, konpentsazio eta bueltatuak izateko aukerakoak direnean eta errentari buruzko zerga pertsonalak.

4.– Bidezkoa bada, 10. artikuluan deskribatutako ebaluazio-organoari dagokio zein gastuk jasoko duten diru-laguntza finkatzea, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz.

Artículo 5.– Gastos subvencionables.

1.– Serán subvencionables los gastos relativos a la organización y realización de las actividades descritas en el artículo 1, de acuerdo con las determinaciones de los siguientes apartados.

2.– Se consideran cuatro tipos de gasto subvencionable: externos, de personal, generales y de inversiones:

a) Gastos externos. Se consideran como tales los generados por servicios o prestaciones realizadas por entidades diferentes a la beneficiaria, bien sean públicas o privadas, o por personas físicas. En este tipo de gastos se considera subvencionable el 100%.

b) Gastos de personal. Se consideran como tales los generados por el personal de la entidad beneficiaria, bien sea de plantilla, bien contratado específicamente para la actividad, que se justifican generalmente mediante nóminas o contratos de trabajo. Estos gastos se consideran subvencionables hasta el 40% de los gastos externos.

c) Gastos generales. Se consideran como tales los gastos de gestión realizados por la estructura de la entidad para la organización del proyecto (teléfono, electricidad, correo, fotocopias…) y los de protocolo derivados del proyecto (cenas de recepción, lunch…). Estos gastos se consideran subvencionables hasta el 10% de los gastos externos.

d) Inversiones. Se consideran como tales los gastos correspondientes a la compra de equipos informáticos, fotográficos u otras adquisiciones de activos fijos. Estos gastos se consideran subvencionables hasta el 10% de los gastos externos.

3.– No serán subvencionables los siguientes gastos:

a) Los que no estén directamente afectos al proyecto subvencionado, en particular los gastos de funcionamiento ordinario o estructurales de la entidad beneficiaria, sin perjuicio de lo especificado en el apartado 2.c).

b) Los innecesarios o mal justificados, o los que se consideren como no razonables o desmesurados, en función de los principios de economía y de relación coste-eficacia.

c) Los impuestos indirectos, impuestos sobre valor añadido y otros, cuando sean susceptibles de recuperación o compensación y los impuestos personales sobre la renta.

4.– Corresponde al órgano de evaluación descrito en el artículo 10 determinar, en su caso, qué gastos se consideran subvencionables en aplicación de lo dispuesto en el apartado anterior.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.– Eskabideak Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz), Sail horretako lurralde-zerbitzuetan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira.

3.– Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla, diru-laguntzen deialdi hau nahiz gaia honekin lotutako beste edozein administrazio-espediente kudeatu ahal izateko. Fitxategiaren arduraduna Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideaz Sail bereko Zerbitzuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango da. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1 - 01010, Vitoria-Gasteiz.

7. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1) Eskabidea egiteko A inprimakia (1. eranskina), behar bezala beteta.

2) Dagokion ogasunaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak bete dituela adieraziz eta Elkartea erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren erregimena agertuz.

3) Dagokion lurralde-diruzaintzaren ziurtagiri eguneratua, Gizarte Segurantzako betebeharrak bete dituela adieraziz.

4) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

5) Erakundeak izena emanda duelako ziurtagiri eguneratua eta, izaera juridikoaren arabera, dagokion erregistroan jasotako estatutuen kopia.

6) Eskabidea sinatu duenaren ordezkaritzaren ziurtagiria

7) Erakunde eskatzailearen arduradunak luzatutako ziurtagiria, proiektu bererako eskatutako edo jasotako bestelako diru-laguntzei buruzkoa (A5 inprimakia).

8) Kideen artean boluntarioak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen kasuan, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean izena ematearen ziurtagiria, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan horri buruz xedatutakoaren arabera.

Artículo 6.– Plazo y presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes deberán presentarse en la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental, calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, en los Servicios Territoriales de dicho Departamento o en cualquiera de los lugares establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa a los y las solicitantes que los datos que faciliten serán incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro expediente administrativo relacionado con la materia. El responsable de este fichero es la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del propio Departamento, dirigiéndose para ello a la calle Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 de Vitoria-Gasteiz.

Artículo 7.– Documentación a presentar.

1) Impreso A (anexo 1) de solicitud debidamente cumplimentado.

2) Certificación actualizada de la Hacienda correspondiente, acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias incluyendo el régimen del impuesto sobre el valor añadido en el que esté censada la asociación.

3) Certificación actualizada de la Tesorería Territorial correspondiente, acreditativa del cumplimiento de las obligaciones de Seguridad Social.

4) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

5) Certificación actualizada de la inscripción de la entidad y copia de los Estatutos inscritos en el Registro correspondiente según su naturaleza jurídica.

6) Documento que certifique la representatividad de la persona que suscribe la solicitud.

7) Certificación emitida por la persona responsable de la entidad solicitante relativa a otras subvenciones solicitadas o concedidas para el mismo proyecto (impreso A5).

8) En el caso de las entidades privadas sin ánimo de lucro que cuenten entre sus miembros con personas voluntarias, certificado de inscripción en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado, de conformidad con lo dispuesto al efecto en el Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al voluntariado.

9) Erakunde eskatzailearen izaera juridikoa fundazioa bada, Babeslaritzan aurkeztutako azken kontuematearen ziurtagiria.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean akatsak zuzentzea.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak aurkeztutako eskaeran akats edo zehaztasun-ezak antzemanez gero, erakunde eskatzaileari jakinarazi eta hamar eguneko epea emango dio horiek zuzentzeko; eta ohartaraziko dio, bestela eskaerari uko egin diola ulertuko dela, aldez aurretik dagokion ebazpena eman ondoren. Ebazpen hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz emango da.

9. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan araututako diru-laguntzak kudeatzea.

10. artikulua.– Ebaluazio-organoa.

1.– Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko bi teknikarik kide anitzeko organoa osatutako dute aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak izendatuko ditu horiek.

2.– Ebaluazio-organoak dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Ingurumen sailburuordeari. Proposamen horretan zehaztuko da zein jarduerak jaso dezaketen diru-laguntza eta horren zenbatekoa, Agindu honen 11. artikuluan aipatutako esleipenerako irizpideen eta aurrekontu-mugen arabera.

11. artikulua.– Proiektuak balioesteko eta diru-laguntzak kuantifikatzeko irizpideak.

1.– Proiektuak balioesteko irizpideak hauek dira:

a) Jardueraren kalitatea edo interesa (15 puntu): Kontuan hartuko dira jardueraren edukia, lortu nahi diren helburuak, hura aurrera eramateko metodologia, ebaluazioa eta berritasuna.

b) Gizartearen partaidetza (15 puntu): Kontuan hartuko dira jarduera zein kolektibori zuzenduta dagoen, kolektibo horren prestakuntza-beharrak, partaide-kopurua, iraupena eta, dagokionean, kaleratutako argitalpenen edo aleen kopurua. Elkartutakoez bestelako kolektiboei zuzendutako jarduerei lehentasuna emango zaie.

9) En el caso en el que la entidad solicitante tuviera naturaleza jurídica de Fundación, acreditación documental de la última rendición de cuentas presentada al Protectorado.

Artículo 8.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará a la entidad solicitante, concediéndole un plazo de diez días para que proceda a su subsanación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9.– Órgano encargado de la gestión de las subvenciones.

Corresponde a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental de la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 10.– Órgano de evaluación.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un órgano colegiado compuesto por la Directora de Biodiversidad y Participación Ambiental y dos técnicos/as del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorios, que serán designados o designadas por la Directora de Biodiversidad y Participación Ambiental.

2.– El órgano de evaluación elevará al Viceconsejero de Medio Ambiente la correspondiente Propuesta de Resolución, que ajustándose a los criterios de adjudicación señalados en el artículo 11 de la presente Orden y a los límites presupuestarios, determine las actividades susceptibles de obtener subvención así como la cuantía de la misma.

Artículo 11.– Criterios de valoración de los proyectos y cuantificación de las subvenciones.

1.– Los criterios de valoración de los proyectos serán los siguientes.

a) Calidad o interés de la actividad (15 puntos): teniendo en cuenta su contenido, los objetivos que se pretenden alcanzar, la metodología, evaluación y el carácter innovador de la actividad para llevarla a efecto.

b) Participación social (15 puntos): teniendo en cuenta las necesidades de formación del colectivo al que se dirija la actividad, el número de participantes, la duración de la actividad y, en su caso, el número de publicaciones o ejemplares editados. Se primará las actividades dirigidas a colectivos distintos a los propios asociados.

c) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak antolatzen izandako esperientzia (10 puntu): Agindu honen 1. artikuluan deskribatutakoen antzeko jarduerak antolatzen erakundeak duen esperientzia kontuan hartuko da.

d) Erakundearen inplikazioa ingurumenaren babesean (5 puntu): Lehenetsi egingo dira ingurumenaren babesa helburutzat izan eta euren estatutuetan hala jasota duten erakundeak. Bigarrenik, ingurumenaren gaineko ikerketak eta azterlanak helburutzat izan eta euren estatutuetan hala jasota duten erakundeak lehenetsiko dira. Hirugarren izango dira ingurumena babeste aldera ekintzak burutu dituzten erakundeak, euren helburua ingurumenarekin loturik ez egon arren.

e) Erakundearen inplikazioa borondatezko jardueretan, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean ezarritakoaren arabera; Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorreko izen-ematearen bidez ziurtatuko da (5 puntu).

f) Lehentasunezko jardun-esparruak, ingurumen-intereseko eremuak (5 puntu): Dauden legezko babes-figuren arabera, ingurumen-interesekotzat deklaratutako eremuetan garatu beharreko jardunak.

g) Euskaraz egindako proiektuak (5 puntu).

2.– Diru-laguntzen kopurua finkatzeko, eskaerak aintzat hartzeko hurrenkera balioespen handienekotik txikienekora izango da, baldin eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta dagozkion mugen barruan, aurrekontu-kreditua agortu arte.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ingurumen sailburuordeak emango du Ebazpena, eta eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita lau hilabeteko epean eman eta jakinaraziko zaio interesatuari. Gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da, jendaurrean jakinarazteko.

2.– Epea igarota eskabideen gainean jakinarazpenik izan ezean, eskabideak ukatutzat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ebazpena idatziz emateko aipatutako Legeak Administrazioari ezartzen dion betebeharraren kaltetan izan gabe.

13. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Emandako diru-laguntzaren % 50 laguntza onartu ondoren ordainduko da, 14.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzaren gainerakoa, % 50, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzan, jarduera amaitu eta hiru hilabeteko epean, honako agiriak aurkeztu ondoren ordainduko da:

c) Experiencia en la realización de actividades objeto de subvención (10 puntos): teniendo en cuenta la experiencia de la entidad en la realización de actividades similares a las descritas en el artículo 1 de la presente Orden.

d) Implicación de la entidad en la protección del medio ambiente (5 puntos): primando en primer lugar a aquellas entidades cuyo objeto sea la protección del medio ambiente y así se recoja en sus estatutos. En segundo lugar, las entidades cuyo objeto sea la investigación o el estudio del medio ambiente y así se recoja en sus estatutos. En tercer lugar las entidades cuyo objeto no este relacionado con el medio ambiente pero que, sin embargo hayan desarrollado actividades en aras de su protección.

e) Implicación de la entidad en actividades de voluntariado conforme a lo establecido en la Ley 17/1998, de 25 de junio, de Voluntariado, que será acreditado a través de la inscripción en el Censo General de Organizaciones de Voluntariado (5 puntos).

f) Campos de actuación prioritarios, zonas de interés medio ambiental (5 puntos): actuaciones que se vayan a desarrollar en áreas declaradas de interés medioambiental en virtud de diferentes figuras legales de protección.

g) Proyectos realizados en euskera (5 puntos).

2.– Para la determinación de la cuantía de las subvenciones se estimarán las solicitudes por orden de mayor a menor valoración, siempre que reúnan los requisitos determinados en la convocatoria y con sus límites, y hasta que se extinga el crédito presupuestario.

Artículo 12.– Resolución.

1.– El Viceconsejero de Medio Ambiente dictará Resolución, la cual se notificará individualmente a los interesados, en el plazo máximo de cuatro meses, a contar desde la finalización del plazo de presentación de las solicitudes. Además, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco una relación de las subvenciones concedidas, a efectos de conocimiento general.

2.– Si transcurrido el expresado plazo no se hubiera efectuado la indicada notificación, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de resolver que la citada Ley impone a la Administración.

Artículo 13.– Pago de la subvención.

1.– El 50% del pago de la subvención concedida se hará efectivo una vez aceptada la ayuda, conforme a lo establecido en el artículo 14.1.

2.– El pago del restante 50% se efectuará después de la presentación, en el plazo de tres meses posteriores a la finalización de la actividad, ante la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental, de la siguiente documentación:

1) Justifikazioko B inprimakia (2. eranskina), behar bezala beteta.

2) Jarduera garatzeko egindako gastu guztiei dagozkien jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, edota bestelako ordainketa-ziurtagiri bat. 5.2.c artikuluan zehaztutako gastuak ez dira justifikatu behar.

3) Jardueran sortutako materialen kopia (argitalpenak, liburuxkak…).

4) Dagokion ogasunaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak bete dituela adieraziz eta Elkartea erroldatuta dagoen Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren erregimena agertuz.

5) Erakundearen arduradunak luzatutako ziurtagiria, proiektu bererako jasotako bestelako diru-laguntzei buruzkoa (B3 inprimakia).

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honen bidez araututako dirulaguntzen onuradunek, betiere, honako betebehar hauek beteko dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza eta, horrekin batera, agindu honetan aipatutako baldintza eta arau guztiak onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza esleitu izana jakinarazten duen ebazpena jaso eta 10 eguneko epearen barruan, diru-laguntzaren onuradunek berariaz eta idatziz hari uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Diruz lagundutako jarduerak 2009ko abenduaren 31rako amaitu beharko dira.

3.– Jarduerak sorrarazten duen argitalpen, liburuxka eta, oro har, argitalpen orotan, berariaz adierazi behar da hura Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak diruz lagundu duela, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretua, EHAAren 205. zenbakian argitaratua).

4.– Diruz lagundutako ekintzak sustatzeko sortutako kartelak, testuak eta agiriak euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira.

5.– Azterlanek, egitarauek, jardunaldiek, argitalpenek, etab. genero-berdintasunaren ikuspegia izango dute, eta ez dute elementu diskriminatzailerik jasoko ez hizkuntzan ez eta irudietan ere.

6.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, doan eta era ez-esklusiboan uztea, aurkeztutako agirietan jasotako informazio teknikoa eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren informazio-sistemetan txertatzeko; baita edozein baliabide edo formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkotan, informatikotan edota teknikaren

1) Impreso B (anexo 2) de justificación, debidamente cumplimentado.

